

KANALAK - VESTIUM SECUR

Produktua saltzeko edo eskaintzeko hainbat modu ditugu, bezero mota desberdinengana iritsi ahal izateko. Mundu guztia ez da esparru berean mugitzen. Armairuak, gure webgunearen bidez enkargatu daitezke, eta bertan produktuaren argazkiak eta bideoak egongo dira eta nola ez, informazioa. Ahalik eta argienak eta esplizituenak izaten saiatuko gara.

Horrez gain, hainbat aurkezpen egingo ditugu produktua pertsona bati baino gehiagori zuzenean erakutsi ahal izateko, eta produktuaren funtzionamendua eta helburua erakutsi eta azaldu ahal izateko, maiz egingo ditugu horrelako aurkezpenak. Hauek, leku ezberdinetan egingo dira, denda fisikoaren falta ordezkatzeko... Irargariak gehituko ditugu adibidez euskal egunkarian, herriko egunkari edo kroniketan. Produktua saldu ahal izateko gure ideia interesgarrietako bat institutu, eskola, ospitale, bulego eta eraikin publikoetara zuzenean joatea da, horrela gure produktua zuzenean aurkeztuko da. Gure ustez, herri bateko liburutegian, edo eskola batean, horrelako sistema berritzaile bat ikusten duen jendeak, ahoz-ahoz joango da eta saltzeko aukera gehiago izango ditugu, gainera, jende gehiagorengana iritsiko da.



Gure armairuak erosi nahi dituen edonork tratu pertsonalizatua jasoko du. Produktua aukeratzeko lagunduko zaio baina, aurretik, armairuak zer funtzio betetzen duen azalduko diogu. Erakusketak egingo ditugu produktua aurkeztu ahal izateko, oraingoz ez dugu denda

fisikorik izango, baina hau sortzeko intentzioa bai. Telefonoz ere erantzungo zaie zalantzei, eskaerei edo produktuarekin arazoren bat sortu zaion edonori; beraz, telefono-bezeroari arreta eskainiko dugu. Web orri bat izango dugu gurekin harremanetan jarri ahal izateko.

